

KOD.: 2309

A201 - A202 - A203 - A204 - A205 - A206 - A207 - A208 - A209 - A216 - A217 - A218 - A220 - A224

**LEHEN ARIKETA
LEHEN PROBA**

***Denbora, gehienez: 60 minutu.
Galderak: 60.***

EREDUA:	D
---------	----------

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. Udal errolda; auzotarren eskubideak eta eginbeharrak.

Aukera ezazu OKERREKOA:

- a) Atzerritarrak udal erroldan inskribatuta egotea Espainian legezko bizilekua izatearen froga izango da, eta indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskubideak aitortuko dizkie, bereziki Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen arloan.
- b) Udal errolda administrazioaren erregistro bat da, non udalerriko bizilagunak agertzen baitira. Bertako datuak udalerrian bizi izatearen eta ohiko bizilekuaren froga dira. Datu horiei buruz egiten diren ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak dira, administrazio-ondorio guztietarako.
- c) Estatuko Administrazio Orokorrak, udalekin eta autonomia-erkidegoetako administrazioekin lankidetzan arituz, bizilekua atzerrian duten espainiarren errolda bat egingo du, eta horri udalerrietako errolda arautzen duen lege honetako arauak aplikatuko zaizkio. Errolda horretan inskribatutako pertsonak beren inskripzioko zehaztasunetan ageri den Espainiako udalerriko auzotar izango dira, botoa emateko eskubidearen ondorioetarako bakarrik, eta inola ere ez dira udalerririk horretako biztanle izango.
- d) Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituztenean bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

2.- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du gai hauetan:

- a) Autogobernu-erakundeen antolakuntza, erregimena eta funtzionamendua, indarrean dagoen autonomia-estatutuko arauen barruan.
- b) Nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat etorritik.
- c) Kasinoak, jokoak eta apustuak, Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuak izan ezik.
- d) Meategien eta energiaren erregimena. Baliabide geotermikoak.

3.- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du gai hauetan:

- a) Garapen komunitarioa. Emakumeen egoera. Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.
- b) Merkataritza-burtsak eta merkantziak eta balioak kontratatze gainerako zentroak, merkataritza-legediarekin bat etorritik.
- c) Farmazia-antolamendua, Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta higiena, Estatu-tuaren 18. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.
- d) Jabetza intelektuala eta industrialia.

4.- Toki-erakundeen ondarea honako hauek osatzen dute:

- a) Jabari publikoko ondasunak.
- b) Ondare-ondasunak.
- c) Bereak dituzten eskubide eta akzioak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

5.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, langile guztien hautaketa, funtzionarioak nahiz lan-kontratadunak izan, enplegu-eskaintza publikoaren bitartez egin behar da,

- a) deialdi publikoaren bitartez.
- b) lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa askearen bitartez.
- c) berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz, baita publikotasun-printzipioa ere.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 6.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aplikazio-eremua hau da:
- 250.000 biztanletik gorako udalerriak.
 - Probintzia-hiriburuak, hiriburu autonomikoak eta erakunde autonomikoen egoitza direnak.
 - 75.000 biztanletik gorako udalerriak, zirkunstantzia ekonomiko, sozial, historiko edo kultural bereziak dituztenak.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 7.- Tokiko Gobernu Batzordearen eskumenak dira, biztanle-kopuru handiko udalerrietan,
- Udal gobernuaren jardunbide nagusiak zehaztu eta haiei eutsiko zaiela bermatzea.
 - Udal ordenantza eta araudiak onetsi nahiz aldatzea.
 - Honako hauei buruzko erabakiak: udalerrria mugatu eta aldatzea; 7/1985 Legearen 45. artikuluan adierazten diren erakundeak sortu edo desegitea; udalerriko hiriburu aldatzea eta udalerraren nahiz aipatutako erakundeen izena aldatzea, eta bertako bandera edo armarrria aukeratu edo aldatzea.
 - Edozein lizentzia-mota ematea, salbu eta alorretako legeriak hala aitortzen badio.
- 8.- Konstituzioaren 22. artikulua babesean eratutako elkarteei gagozkielarik:
- Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun-ondoreetarako bakarrik.
 - Ez da nahitaezkoa inskribatzea.
 - Erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondoreetarako bakarrik.
 - Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun- eta publizitate-ondoreetarako.
- 9.- Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan ezarritakoaren ildotik, eskubide hau bermatzen da:
- Ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea zaintzeko eskubidea.
 - Norberaren irudirako eskubidea.
 - Posta-komunikazioen sekretua bermatzeko eskubidea.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 10.- Hemen dago jasota hezkuntzarako eskubidea:
- Konstituzioaren 14. artikuluan.
 - Konstituzioaren 25. artikuluan.
 - Konstituzioaren 27. artikuluan.
 - Konstituzioaren 16. artikuluan.
- 11.- Hemen dago jasota erlijio-askatasunerako eskubidea:
- Konstituzioaren 14. artikuluan.
 - Konstituzioaren 25. artikuluan.
 - Konstituzioaren 27. artikuluan.
 - Konstituzioaren 16. artikuluan.
- 12.- Enplegatutako publikoak honela sailkatzen dira:
- Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
 - Lan-kontratudun langileak.
 - Behin-behineko langileak.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 13.- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa identifikazio digitalerako modu hauek onartzen ditu:
- Ziurtagiri digitalak bakarrik.
 - Herritarren udal txartela bakarrik.
 - Ziurtagiri digitalak nahiz herritarren udal txartela.
 - NAN elektronikoa bakarrik.

14.- Hau da, gaur egun, elkarguneen kopurua:

- a) 15
- b) 12
- c) 18
- d) 10

15.- Gimnasia-fosoa du Gasteizko kirol-instalazio honek:

- a) Mendizorrotzeko pabilioia
- b) San Andreseko kiroldegia
- c) Arriagako kiroldegia
- d) Ariznabarreko kiroldegia

16.- Rokodromoa du Gasteizko kirol-instalazio honek:

- a) Ariznabarreko kiroldegia
- b) Aranaldeko kiroldegia
- c) Mendizorrotzeko pabilioia
- d) Olaranbeko kiroldegia

17.- Aurrekontu-proiektua onestea honen eskumena da:

- a) Osoko bilkura
- b) Tokiko Gobernu Batzarra
- c) Ogasun Batzardea
- d) Alkatea

18.- Alkateak, gure Udalean, Tokiko gobernua modernizatzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 124. artikulua arabera, tratamendu hau du:

- a) Txit prestua
- b) Txit argia
- c) Jauna
- d) Ez dauka tratamendu jakinik

19.- Ordenantza eta araudiak onetsi eta aldatzea honen eskumena da:

- a) Osoko bilkura
- b) Tokiko Gobernu Batzarra
- c) Ogasun Batzardea
- d) Eledunen Batzarra

20.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babeserako 2016/679 Araudi Orokorraren arabera, datu pertsonalen multzo egituratu orori, irizpide jakinen arabera eskuragarri daudelarik, dela zentralizatuta, deszentralizatuta edo modu funtzional edo geografikoan banatua, honela esaten zaio:

- a) Datu pertsonalak
- b) Fitxategia
- c) Datu generikoak
- d) Hirugarrena

21.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen aplikazio-arauak —VI. titulua—, hauei aplikatuko zaizkie:
ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Arabako lurralde historikoko kuadrilla, ermandade eta kontzejuei.
- b) Partzuergoei eta gainerako erakunde instrumentalei, tokiko kapital publikoaren partaidetza nagusitzen bada edo nagusitasunezko lekua toki-erakunde batek badu.
- c) Udalerriei.
- d) Udal-enpresa publikoei, artikulua honetan aurreikusitako erakundeek ehuneko 60 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.

22.- Informazioa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpena, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, epe honetan jakinarazi beharko zaio eskatzaileari:

- a) Gutxienez hamabost eguneko epean.
- b) Gehienez hilabeteko epean.
- c) Gehienez hiru hilabeteko epean.
- d) Ez dago eperik.

23.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen eremu subjektiboa hau da: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu komunak; Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten diren lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuak.
- b) Merkataritza-sozietateak, artikuluko honetako entitateek 100eko 60 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- c) Fundazioei buruzko legerian aurreikusten diren sektore publikoko fundazioak.
- d) Zuzenbide publikoko korporazioak, administrazio-zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.

24.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legeko printzipio orokorra da:

- a) Diferentziaren errespetua.
- b) Dibertsitatearen errespetua.
- c) Ordezkaritza orekatua.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

25.- Aukera-berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako printzipio orokor gisa, hemen dago jasota:

- a) Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 25. artikuluan.
- c) Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen 3. artikuluan.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

24.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela esan ahal izango da sexu bakoitzak...

- a) % 45eko ordezkaritza badu.
- b) gutxienez, % 50eko ordezkaritza badu.
- c) gutxienez, % 40eko ordezkaritza badu.
- d) Organo-motaren mende egongo da.

27.- Zigor-zuzenbideko arau-hauste diren edo horrelako arau-hausteen ondorioz eman diren egintzak, 39/2015 Legearen arabera...

- a) deuseztagarriak dira.
- b) baliozkotu daitezke.
- c) delitu izan litezke.
- d) erabat deusezak dira.

28.- 39/2015 Legearen arabera, hauek baliozkotu ahal izango ditu Administrazioak:

- a) Egintza deusezak, haien akatsak zuzenduz.
- b) Egintza deuseztagarriak, haien akatsak zuzenduz.
- c) Egintza deusezak eta deuseztagarriak, baliozkotzea arrazoituz.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

29.- 39/2015 Legearen arabera, ordutan adierazitako epeak honela zenbatuko dira:

- a) Ordutan adierazitako epeak ordu ordu zenbatuko dira.
- b) Ordu ordu eta minutuz minutu, egintza jakinarazten edo argitaratzen den ordu eta minututik aurrera.
- c) Ezin izango dira izan hogeita lau ordu baino gehiagokoak, hala izanez gero egunetan adieraziko baitira.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

30.- 39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura baten ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, prozedura arautzen duen arauak adierazten ez badu, hau izango da:

- a) Sei hilabete.
- b) Hiru hilabete.
- c) Bi hilabete.
- d) Ez dago eperik; isiltasuna baliatzen da.

31.- Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dieten egintzak, 39/2015 Legearen arabera:

- a) erabat deusezak dira.
- b) deusezak edo deuseztagarriak izan daitezke.
- c) deuseztagarriak dira.
- d) kaltegarriak dira.

32.- 39/2015 Legearen arabera, jakinarazpen oro epe honetan egin beharko da:

- a) Hamabost eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- b) Bi hilabeteko epean, egintza ematen den egunetik.
- c) Hamar eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- d) Zortzi eguneko epean, egintza ematen den egunetik.

33.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, eskaera, idazki edo komunikazio batean interesdun bat baino gehiago bada...

- a) interesdunarekin bakarrik egingo dira egin beharreko jardunak.
- b) ordezkariarekin bakarrik egingo dira egin beharreko jardunak.
- c) interesdun horiek espresuki adierazitako ordezkari edo interesdunarekin egingo dira egin beharreko jardunak; ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen den lehenengoarekin.
- d) idazkian agertzen den azkenarekin egingo dira egin beharreko jardunak.

34.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikotzat jotzen dira:

- a) Estatuko administrazio orokorra.
- b) Autonomia-erkidegoetako administrazioak.
- c) Erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak oro, administrazio publikoei lotuak edo haien menpeko direnak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

35.- Hemen dago araututa karrerako funtzionarioaren izaeraren galera:

- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 63. artikuluan.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 40. artikuluan.
- c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 55. artikuluan.
- d) Funtzionario-izaerari eutsi egiten zaio beti, erretirora arte.

36.- Udal erroldan inskribatzean, datu hauek bakarrik jasoko dira nahitaez: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Sexua
- b) Eskola-ziurtagiria edo titulua
- a) Jaiolekua
- c) Egoera zibila

37.- 7/1985 Legearen 13. artikuluan arabera, lurraldez bereizitako populazio-guneak oinarritzat harturik baino ezingo dira udalerrri berriak sortu,...

- a) gutxienez 5.000 biztanle badituzte.
- b) gutxienez 50.000 biztanle badituzte.
- c) gutxienez 10.000 biztanle badituzte.
- d) Ezingo da inolaz ere egin.

38.- Ohitura, Kode Zibilaren arabera:

- a) Ordenamendu juridikoaren iturrietako bat da.
- b) Lege aplikagarriak izan ezean bakarrik baliatuko da.
- c) Lege aplikagarriak izan ezean bakarrik izango ditu ondorioak, moralaren edo ordena publikoaren kontrakoa ez bada eta frogatua gertatzen bada.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39.- Lege penalek behartzen dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea duten pertsonak.
- b) Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonak.
- c) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- d) Espainiako lurraldean dauden pertsonak.

40.- Kode Zibilaren arabera, ezkontzaren ondorioak honako honek arautuko ditu:

- a) Senarraren lege pertsonalak.
- b) Emaztearen lege pertsonalak.
- c) Senarraren edo emaztearen lege pertsonalak, bien artean aukeratuta.
- d) Ezkontideen lege pertsonal erkideak.

41.- Hemen dago jasota enplegatu publikoen jokabide-kodea:

- a) Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legean.
- b) Euskal Funtzio Publikoaren Legean.
- c) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean.
- d) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan —Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina—.

42.- Gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez harago, baldintza abantailatsuetan opari, mesede edo zerbitzurik jasotzeari uko egitea —Zigor Kodean ezarritakoa gorabehera—:

- a) jokabide-printzipio bat da.
- b) printzipio etiko bat da.
- c) herritarren eskubide bat da.
- d) ez dago inongo legetan araututa; funtzionamendu-premisa bat da.

43.- Funtzionario-izaerari uko egitea: Aukeratu OKERREKO erantzuna.

- a) Norberaren borondatez uko egiten zaiolarik, idatziz adierazi beharko da.
- b) Berariaz onartu beharko du administrazioak.
- c) Administrazioak ezingo du uko egitea onartu funtzionarioa diziiplina-dosier bati lotuta badago edo, delituren bat egin duelakoan, auzipetzeko autoa nahiz ahozko epaiketa hasteko autoa eman bada beraren kontra.
- d) Funtzionario-izaerari uko egiteak desgaitu egiten du berriro administrazio publikoan sartu ahal izateko.

44.- Prebentzio Plana, Gasteizko Udalean, Segurtasun Batzordeari aurkeztu beharko zaio:

- a) Onetsi dezan
- b) Kontsultatzeko
- c) Landu dezan
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

45.- Gasteizko Udaleko prebentzio-ordezkarien zereginak dira:

- a) Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko araudia betetzen den zaindu eta kontrolatzea.
- b) Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana diseinatu, ezarri eta aplikatzea.
- c) Langileen prestakuntza eta informazioa.
- d) Prebentzio Planean jasotako dokumentazioa ezagutu eta horri buruzko txostena egitea.

- 46.- Langileei informazioa eta prestakuntza ematea, Gasteizko Udalean, honako honen zeregina da:
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
 - Prebentzio-ordezkariek
 - Sailetako arduradunak
 - Segurtasun eta Osasun Batzordea
- 47.- Segurtasun eta Osasun Batzordeak...
- organo parekideak dira.
 - organo kolegiatuak dira.
 - lan-arriskuen prebentzioaren arloan erregulartasunez eta aldizkakotasunez kontsultatzeko daude.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 48.- Herritarren proposamenak eztatidatu eta lantzeko organoak dira auzoguneak. Gaur egun,
- auzo bakoitzeko bana dago.
 - elkarte bakoitzeko bana dago.
 - zazpi daude.
 - zortzi daude.
- 49.- Berdintasunaren arloko plangintza orokorra taxutu eta arau eta jarraibide orokorrak egitea honen eginkizuna da:
- Autonomia Erkidegoko Administrazioa
 - Toki administrazioa
 - Emakunde
 - Estatua
- 50.- Gasteizko Udaleko Genero Berdintasunerako IV. Planaren esparru-dokumentuak dira:
- Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2017ko Agenda.
 - Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren ebaluazioaren emaitzak.
 - Lantaldeek emandako informazioaren azterketa kualitatiboa.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 51.- Genero Berdintasunerako IV. Plana gidatzen duten printzipioak dira:
- Paradigma feminista
 - Genero- eta interseksio-ikuspegia
 - Gardentasuna
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 52.- Literatura-ekoizpen eta -sorkuntza...
- oinarrizko eskubide eta askatasun publikoetako bat da.
 - Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluan jasota dago.
 - Ez dago jasota Espainiako Konstituzioan bere horretan.
 - a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 53.- Espainiako Konstituzioaren 141. artikulua araberan, probintzia baten mugak aldatzekotan:
- Senatuak onetsi beharko du.
 - Hura parte den autonomia-erkidegoak onetsi beharko du.
 - Gorte Nagusiek onetsi beharko dute, lege organiko baten bitartez.
 - Ezin dira aldatu probintzien mugak.
- 54.- Ohiko bilkura-aldiak iraupen hau izango dute, gutxienez:
- Legegintzaldia
 - Urtean hamaika hilabete
 - Urtean zortzi hilabete
 - Urteko eskola-egun guztiak

55.- Euskadi ordezkaturiko duten senatariak izendatzea, Autonomia Estatutuaren arabera, honi dagokio:

- a) Eusko Jaurlaritza
- b) Lehendakaria
- c) Eusko Legebiltzarra
- d) Espainiako Gobernu

56.- Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko lehendakaria honako honek izendatzen du:

- a) Erregeak
- b) Eusko Legebiltzarrak
- c) Lehendakariak
- d) Botere Judizialaren Kontseiluak

57.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera, kultura-ondareko ondasunetara sarbidea dute:

- a) udalerriko auzotarrek
- b) udalerriko egoiliarrek
- c) udalerrian etxebizitza dutenek
- d) udalerrian errotuta daudenek

58.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, printzipio hauei erantzun behar diete aurrekontu-plantilek:

ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Arrazionaltasuna
- b) Ekonomia
- c) Gardentasuna
- d) Eraginkortasuna

59.- Kode zibilaren arabera, legeak indarrean jartzen dira:

- a) BOEn osorik argitaratzen direnetik hogeitun egunera, haietan besterik xedatzen ez bada.
- b) ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean, haietan besterik xedatzen ez bada.
- c) Argitaratzen direnetik hamabost egunera, haietan besterik xedatzen ez bada.
- d) EHAAn argitaratzen diren egunaren biharamunean.

60.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, udalerrin baten elementuak dira: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Lurraldea
- b) Antolakuntza
- c) Biztanleria
- d) Ogasuna